

Joxe Iriarte, *Bikila*

ZUTIK-EKO KIDEA

Sozialismoa helburu!

Mamutzar bat dabil munduan zehar! Baina, tamalez, ez da oraindik kapitalismoaren amaiera —eta komunismoaren garaia— berri ona— dakarkigun mamutzarra. Aldez aurretik, borroka latza egin beharko dugu krisiak ekarri duen egoera zailaren aurrean, baita honen kalteak langileak eta herri xeheak ordain ez ditzan borroka egin ere. Ahantzi gabe, bide batez, sozialismoari bideak ireki dakizkieken neurriak sustatzeko gai izan beharko dugula. Bestela jai.

Aspaldikoa da kapitalismoak bere geneetan txertatua duela krisia. Alabaina, krisi guztiak ez zaizkio berdin “egokitzen”. Gehienetan, krisia bere kontraesanak arintzeko erabiltzen du eta gutxi batzuetan larritzen du sistema osoa. Egun, hori gertatu zaio. Ez da kasualitatea *krisi perfektua* deitu izana: une berean finantza-krisia eta ekonomia erreala —gain produkzioa eta gain akumulazioa—, komertzioarena eta elikadurarena, eta errematatze ingurugiroaren krisia bildu dituelako bere baitan. Hortik sistemaren kudeatzaileen zaitasunak ataka honetatik irten ahal izateko.

BAINA EZ GAITEZEN INOZOAK IZAN. Honek ez du iraungo. Denbora ematen badiegu, pixkanaka kapitalismoa errekuaratu joango da, eta azkenik, krisiaren errautsetik indarberriturik berpiztuko da



DANI BLANCO

turik berpiztuko da. Artean mundua pikutara bidaltzen ez badute, bederen.

Shock egoeratik nola ateratzen diren ikusi besterik ez dago. Ikas dezagun beraieganetik. Esaterako, gerra negozio bihurtzen dute. Produkzioa moteltzen dute, edo langileak kaleratuz, langile berriak baldintza askarragoetan hartzen dituzte. Eta gauza bera egiten saiatuko dira ideologia alorrean. Honezkerok kapitalismoa gizatiarragoaren aldeko birfundazioaren lelo engainagarria entzun dugu-eta.

Kapitalismoa ez da hilko “Beste mundu bat posible da!” aldarria ez badugu praktikan hezur mamitzen. Horretarako ezker sozialak eta politikoak, hiru alorretan gutxienez, gai izan behar du indarrak metatzeko: lehenean, erresistentzia borroka sozialismoaren birfundazioaren aldeko oldea bihurtuz. Bigarren, gure gizarteko ondasunen banaketa politikoki inposatuz —sozializatuz— eta krisiaren galerak kapitalisten aktiboetatik ordainaraziz —pribatizatuz— eta ekoizpena demokratizatuz. Gizarteak erabaki dezala zer ekoiztu, nola ekoiztu eta zertarako ekoiztu! Hirugarrenean, lantegietan, kalean, foru publikoetan zein instituzioetan, aipaturiko helburuen alde jardungo duen ezkerreko mugimendu anitza birsortuz. Hala biz! ■



Denbora ematen badiegu,
pixkanaka kapitalismoa
errekuaratu joango da, eta
azkenik, krisiaren errautsetik
indarberriturik berpiztuko da



TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Sexismoa



Aztoratuta naukazu Patxi. (Ez nabil Katixa eta Juanjoren ttakunkadaz. Patxi, gure Patxi da.

Edo Joxe. Eta zergatik ez gure Iñaxi? Azken finean gure Euskadin. Enel! Euskal Herrian! Zergatik ez Euskal Hirian? Ez dakit larrazkena ote den, baina gurean nahasmendu ikaragarri batean gaude. Ez dakit txapela bat jantzi, edo koloredun betaurrekoak —ene aztoramendua handitzen doa irakurle jauna, edo andere?—, argazkian koloredunak ditut, ahantzia neukan?).

Hain aztoratua nauzu, ze parentesi bat egin behar izan dut. Ez dakit gogoratzen zaren. Nire nerabezaro-

an, Donostiako zapata denda dotore batean, merkealdi garaian, ilara luze batean itxarotea egokitu zitzaidan. Hainbeste itxaron, ordu bat edo eman nuela. Sartzeaz nengoela, nire atzean ilaran zegoen andrea honela zuzendu zitzaidan: “Ez dator zure ama?”. Ni harrituta, erantzun nion: “Niretzat erosi behar ditut zapatak”. Gogoan dut niretzako atera nuen ondorioa. Noski, ilara hartan gizonezko bakarra nintzen. Urte asko igaro dira Patxi, baina berriro ere Donostian trantze berberean egokitu naiz. Idazle emakumezkoen hitzaldia. Aretoa emakumez lepo beteta. Gizonezkoak, lau. ■